



EUSKAL BATZORDE ORNITOLOGIKOA

Barne-araudia

1. Kapitulumua - Sarrera.

1. artikulua. Euskal Batzorde Ornitológicoaren (EBO) egitura, funtzionamendua eta antolaketa barne-araudi honen bidez kudeatuko dira.

2. artikulua. Euskal Batzorde Ornitológicoaren eragin-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da, geografikoki bere baitan dauden Trebiñu (Burgos) eta Villaverde Turtzioz (Cantabria) barne.

3. artikulua. Euskal Batzorde Ornitológicoa erakunde independentea da, izaera zientifiko eta teknikoa duena, eta beste inolako erakunderen menpe ez dagoena.

4. artikulua. Euskal Batzorde Ornitológicoak, oro har, izaera transbertsala eta aglutinatzailea izango du, eta EAEko ornitologiarentzat interes orokorrekoak diren gaiak landuko ditu, betiere beste inolako erakunde bideratzen ez baditu edo bideratu behar ez baditu. Gainera, EBOk ez ditu bere gain hartuko dagoeneko beste erakunde batzuek egiten dituzten lanak eta funtzioak, edo beste erakunde horien interesekin talka egin dezaketenak, hala nola, natura kudeatzeko lan bereziak, ingurumenaren gaineko eragina aztertzekeo lanak, zentsoak, jarraipen-programak, ikerketa lanak, eta abar.

2. Kapitulumua - Batzordearen funtzioak.

5. artikulua. EBOk ondorengo funtzioak bete ditzake:

- EAEko hegaztien zerrenda orokorra osatzea eta eguneratzea, besteak beste:
 - Azken urteetan EAEn behatu diren hegaztien zerrenda osoa.
 - Espezie bakoitzak gure lurraldean duen estatusa.
- EAEko hegaztientzat erreferentziako taxonomia bat finkatzea, izendegi ofiziala ezarri, euskarazko izen ofizialak barne.
- Aurrekoaren ildotik, Euskal Herritik kanpoko hegaztien euskarazko izendegia osatzeko lanak sustatzea eta bideratzea.
- EAEn ezohiko diren hegaztien behaketak homologatzea.
- Batzordearen webgunea garatzea eta elikatzea.
- Gizartearekin komunikazio-bideak garatzea eta informazio-trukea bideratzea, horretarako beharrezko izan daitezkeen erremintak erabilita, hala nola, sare sozialen bitartez edo unean unean egoki izan daitezkeen hedabideak erabilita.
- EAEko Urtekari Ornitológicoa osatzea.
- Euskal Kongresu Ornitológicoa antolatzea.
- EAEn ornitologiaren alorrean diharduten erakunde, elkarte eta norbanako profesional zein zaletuen arteko kolaborazioa eta elkar-ezagutza sustatzea.
- EAEn ornitologiaren alorrean egon daitezkeen ekintza eta jardueren inguruko informazio-kanalak sustatzea.

- EAEko ornitologiarentzat intereseko izan daitezkeen gaien inguruko txosten teknikoak egitea, deskriptiboak zein gomendio-emaleak, hegaztien ezagutzaren eta kontserbazioaren esparruetan.

Zerrenda hau ez da itxia eta EBOk beste funtzio batzuk ere izan ditzake, betiere 1. artikuluan zehaztutakoarekin bat baldin badatoz.

6. artikulua. Aurreko artikuluan zehazten diren funtzioak bere gain hartuko ditu Euskal Batzorde Ornitologikoak, baina askatasuna izango du betekizun horiek egoki deritzon erakunde edo pertsonen esku uzteko, baldin eta Batzorde honek dituen helburuak zuzen betetzen badira.

3. Kapitulumua – Kideak eta karguak.

7. artikulua. Euskal Batzorde Ornitologikoaren zuzendaritza 10 kidek osatuko dute. Hegaztien inguruko adituak izango dira edo, gutxienez, EBO barruan izango dituzten funtzioak betetzeko gaitasuna edota ezagutza izan beharko dute.

8. artikulua. Batzordeak ondorengo karguak izango ditu:

- Presidente
- Idazkaria
- Batzordekideak

9. artikulua. Presidentearen funtzioak ondorengoak izango dira:

- Batzordearen ordezkari izan beste erakunde eta administrazio batzuen aurrean.
- Batzordearen bileretako buru izan.
- Batzordean erabakiren bat hartu behar denean, eta bozketan berdinketaren bat balego, azken erabakia hartu.

10. artikulua. Idazkariaren funtzioak ondorengoak izango dira:

- Batzordearen jarduera egokia ziurtatzea. Batzordearen funtzionamendua ez bada egokia ere, Idazkariari dagokio bilera bat deitzea arazoak konpontzeko.
- Batzordeak eskatzen dizkion betebeharrak bideratzea.
- Batzarretarako gai-ordenak zehaztea eta aktak idaztea. Aktei dagokionez, hartu diren erabaki guztiak eta egindako bozketak guztiak bildu beharko ditu zehaztasun osoz.
- Akta guztiak gordetzea, nahiz eta EBOko kide guztiek izango duten kopia digitaletara sarrera.
- EBOra iristen diren iradokizunak eta kexak bideratzea.
- Presidentearen lekua hartzea, berori ez balego.

11. artikulua Batzordekideen funtzioak ondorengoak izango dira:

- Batzordearen funtzio eta lanetan modu aktiboan parte hartzea, Batzordeak berak erabakitzen duen moduan.
- Batzordearen ordezkari izatea, batzordeak hala erabakitzen duenetan.

4. Kapitulumua - Hauteskundeak.

12. artikulua. EBOko kideak bozketak unibertsal eta sekretu bidez aukeratuko dira Euskal Kongresu Ornitologikoan. Adinez nagusi den eta ornitologiari buruzko nahikoa ezagutza duen edozein kide aurkeztu daiteke kide izateko.

13. artikulua. Bozketaren ostean hautatu den zuzendaritzak 3 urtez beteko du bere lana, hurrengo bozketara arte.

14. artikulua. Batzordeko kide izateko hautagaiak bakarka edo zerrenda itxi batean aurkeztu daitezke. Hautagaitza ofizialki bideratzeko idazkariari jakinarazi beharko diote euren asmoa. Hautagaien izenak webgunean argitaratuko dira, hauteskundeak baino hilabete lehenago. Hautagaiak euren ezagutza eta gaitasuna frogatu beharko dituzte. Informazio hori hautagaitzaren zerrendari erantsiko zaio.

15. artikulua. Hauteskundearen data Batzordeak ezarriko du eta, ahal dela, Euskal Kongresu Ornitologikoan bertan egingo da. Hauteskundearen data 2 hileko aurrerapenarekin ezagutaraziko du presidentek.

16. artikulua. Batzordeko kideek borondatez jardungo dute eta ez dute diru-ordainik jasoko euren lanarengatik. Salbuespena izan daiteke, eta bakarrik horretarako dirurik balego, dietak eta bidaia-gastuak kobratu ahal izatea.

17. artikulua. Batzordekideen artean hutsik geratzen diren lekuak (gaixotasun, heriotza, bateraezintasun edo beste edozein arrazoiarengatik) zuzenean bete daitezke gainontzeko batzordekideek aukeratutako beste hautagai batekin. Horrela izendatu diren kideak hurrengo hauteskundera arte izango dira batzordekide.

5. Kapitula – Araudia aldatzea.

18. artikulua. Barne araudi hau Batzordekideen eskaeraz aldatu daiteke edo Euskal Kongresu Ornitologikoan parte hartu duten kideen %25ak eskatuta. Bigarren aukera horretan, eskaera bat egin beharko zaio Batzordeari egin nahi den aldaketa zehaztuz. Kasu bietan, Euskal Batzorde Ornitologikoa izango da aldaketaren proposamen-zirriborroa idatziko duena.

19. artikulua. Eskaera hori Batzordeak onartzen bada, Euskal Kongresu Ornitologikoan egingo den EBOri buruzko bilera bereziaren gai-ordenean sartuko da edo, bestela erabakitzen bada, aldaketa hori bozkatzeko antolatuko den ezohiko bileraren gai-ordenean. Ezohiko bilera horretara, gutxienez, aldaketa-eskaera egin zen Kongresuko partaide guztiak gonbidatuko dira.

20. artikulua. Euskal Kongresu Ornitologikorako deialdiarekin batera, aldaketaren berri ematen duen testua argitaratuko du Batzordeak, gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin, ponentzia horri behar diren zuzenketak egin ahal izateko. Batzordeak zuzenketa guztiak batuko ditu eta, egokiak badira, Kongresuko bozketara eramango ditu.

21. artikulua. Euskal Batzorde Ornitologikoa arau gehigarriak onartu ahalko ditu barne-araudi honen garapenerako; arau berriak ezingo dute aldatu araudi honen funtsezko xedea.

Gasteizen, 2019ko otsailaren 22an



**EUSKAL BATZORDE
ORNITOLOGIKOA
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI**